



LITERATUR SOLASALDIA

Fernando Buesa Fundazioaren ibilbidean zehar, hainbat irakurketa partekatu egin ditugu: gure "Literatur solasaldiak". Proposatutako autoreen ikuspegitik abiatuz eta irakurritako testuak eztabaidatuz, egungo gizartearen dilemak argitzen saiatzen gara. Sarritan gizakiaren eta guztion oinarrizko eskubideen aurkakoa den errealitate honek etengabe zalantzan jartzen ditu hezkuntza, balore zibikoak edo konpromiso demokratikoak. Topaketa hauei esker, taldean sakontzen ditugu bakarka irakurritako testuak.

Ikasturte honetan, Hungariako Imre Kertész idazlearen "Un instante de silencio en el paredón" saiakerarekin hasi nahi ditugu gure literatur saioak.

Saioak Fundazioaren egoitzan izango dira (Posta kaleko 15-1º zenbakian, Vitoria-Gasteiz) **azaroaren 23an eta abenduaren 21ean** (arratsaldeko 18:30etik 20:30era) eta Miguel Loza Aguirre izango da moderatzailea.

Parte hartu nahi baduzu, 945 234 047 telefonora deitu edo idatz ezazu centrodocumental@fundacionfernandobuesa.com helbidera.

Liburuak: Fundazioaren doako mailegua (eskaerak solasaldi bakoitza baino 25 egun lehenagora arte egin daitezke 945-234047 telefonora deitu eta Davidekin hitz eginda edo centrodocumental@fundacionfernandobuesa.com posta elektronikoan)

Irakurri testua eta paragraforen batek arreta ematen badizu azpimarra ezazu; gogoratzeko modukoa dela uste baduzu, idatzi azpimarratzera eraman zaituzten arrazoiak.

Solasaldian, testuei buruzko iritzia libreki emateaz gain, aukera izango duzu azpimarratu duzun paragrafoa irakurtzeko eta azaltzeko zergatik azpimarratu duzun. Hortik sortuko da elkarrizketa, elkarrizketaren bidez testuaren esanahi desberdinak partekatuko ditugu eta esanahi horiekin aberastu egingo gara.

"Un instante de silencio en el paredón"

Imre Kertész, Ed. Herder-Bartzelona 2002

Bere saiakeretan, Imre Kertész idazleak hurbilketa erradikala egiten du XX. mendeko Europako errealitatera, oso gertutik bizi izan duena. XX. mendeko Europako eta munduko gertakari nagusia, hots, Holokaustoa, aztertzean, idazlea bere esperientzian eta hamarkadetan zehar egindako hausnarketetan oinarritzen da. Liburu honekin, ekarpen erabakigarria egiten dio historia garaikideko une dramatikoenetako baten inguruko eztabaidari. Baina liburu honetan ez du bakarrik hitz egiten esperientzia hau bizi izan duen ahotsak; Europaren ahotsa ere entzun daiteke, ondare kultural eta espiritual bera partekatzen duen eremu geografikoaren ahotsa alegia. Kertész-ek bere herrialde den Hungariari buruz hitz egiten du, eta baita ere bertako hiriburuaz, aberriaz izan ohi dugun kontzeptuaz eta Hungariako literaturako zenbait izen garrantzitsuei buruz ere bai, esaterako Márai, Radnóti edo Krúdy.